

HITZ BITAN

Andoni Urbistondo | DONOSTIA

1 991 urteko uda. US Open torneoaren jokoan. 15 urte, bost hilabete eta zortzi eguneko adina zuen orduan Jennifer Capriati tenislari estatubatuarra. Torneo hartako finalerdiak jokatzeko inoiz sailkatu zen tenislaririk gazteena zen. Ez zen bere lehen arrakasta izan, 13 urterekin Roland Garroren txapelketa irabazi baitzuen —gazteena torneo horretan ere—.

Ospea, izena hartu zuen Capriatik eta sekulako dirutza irabazten hasi zen balentria haren ostean. 700 milioi pezetako soldata zuen urtero, publizitatearen bidez. Hori guztia 14 urte eskasekin.

Alaba aberatsa zutela eta egoera ezin sinetsita, zer egin, zer ez, zein lagunekin ibili, zer bide jarraitu eta beste erakutsi, inposatu zioten gurasoek, itsu-itsu. Esne-mamitan bizitzera ohituta, alabak etxeratzeko zuten dolar kopuruarekin konforme ez, eta gehiago ekartzen ahalegintzeko eskatu zioten. Capriatik ez zion presio horri eusten jakin, eta Stefano aitak alaba ordura arteko bizileku eta lagun girotik bereiztea hobetsi zuen.

Capriatik ez zuen aitaren erabakia onartu, eta gurasoen etxetik alde egin zuen, bakarrik bizitzeko. 17 urte eskas zituen. Gaztetxoa zen, baina

Talentuak bizirik dirau

TENISA. Jennifer Capriatiren kirol arrakastak hizpide dira berriro, urte mordoa bakardadean hondoa jota igaro ostean; Hingisen aurka ariko da Grand Slam bateko bere lehen finalean, bihar, Australian



WILLIAM WEST / AFP
Jennifer Capriati, atzo, Lindsay Davenport erkidearen aurka jokatu zuen finalerdian, pilotari begiratzen.

gaztetxo diruduna, ezaguna. Kirolari ezagunen bizitza pertsonalaren berri ematen iaioak ziren hedabideek sekulako pagotxa topatu zuten Capriatiren kontura. Jazarpena ikusgarria

izan zen, eta ez zen asterik tenislari gazteak aldizkarietako orriak betetzen ez zituen.

Nora ezean, tenisa utzi eta ikasten hasi zen berriro, baina sendiaren babesik gabe, bakar-

dade ilunenean, era guztietako arazoak azaleratu ziren Capriatiren bizitzan: salaketa bat dena batean ustez eraztun bat lapurtzeagatik, beste bat ustez drogak edukitzeagatik... Diruak


konpondu eziniko itzalean murgildu zen Capriati. Lau urte iraun zuen itzal luzean.

Gurasoen laguntzarekin, ahalegin emankorra

Ezinean jardun zen, baina zulo beltzetik ihes egiteko ahalegin berezia egin zuen. Gurasoengana jo zuen, eta bi aldeek egin dako okerrak onartuta, tenisean hasi zen berriro. Pattal samar jardun zen lehen urtean, emaitza onik lortu gabe, baina pozik zen, 1998a munduko 100 tenislari onenen artean amaitu zuelako. 1999ko hasieran, Harold Solomon jokalaria ohia ezagutu eta Capriatiri bere autoestimua hobetzen erakutsi zion: «Nahi duzun jomuga finkatu, bertara iritsiko baitzara. Talentua ez da inoiz galtzen», esan zion.

Esan eta egin. Iaz, 14. lekura iritsi zen ATPko zerrendan. 24 urterekin, Grand Slam bateko lehen finala jokatu du Hingisen aurka, Australiako Irekian, bihar. «Aske sentitzen naiz, eroso, eta bakean nire buruarekin». Bejondeiola!

HITZ ETA PITZ



ADOLFO MADINABEITIA
(Mendizale arabarra)

«Eremu ezezagun asko dago. Gazteenek zerbait berria bilatzeko aukera izatea ezinbestekoa da»

PATRICK KLUIVERT
(Bartzelonako jokalaria. Ayalak Simaori egindako sarrerari buruz)

«Gezur hutsa da Lopez Nietok Ayalaren falta ez zuela ikusi esatea»

XABIER AKERRETA
(Portlandeko medikua)

«Bitaminak hartzea ere debekatuko lukete Frantzia»

KATAMARAN LASTERKETA. Atzo abiatu zen Lur Mutur Hiritik Team Adventure katamarana.



‘The Race’ katamaran lasterketako partaideak Indiar Ozeanoan sartu dira

The Race katamaran lasterketako partaideak Hego Afrikatik urrundu eta Indiar Ozeanoan murgildu dira. Argazkikoa Cam Lewis marinelak da, *Team Adventure* katamaraneko gidari bakarra. Katamaran horrek kalte larriak jasan zituen urtarrilaren 17an, Lur Mutur hiritik

hego-mendebaldera 1.100 miliatara zela. *Team Adventure* katamaraneko bi kidek, zaurituak, lasterketa utzi dute eta beste bik ere bai, arrazoi pertsonalengatik. Katamarana konpondu ostean, Lewis bakarrik abiatu da proba amaitzeko xedearrekin.